



# Sentsibilizazio Astearen baitan, mimo emanaldia

**Gizartea** » 'Pantomimas Kutxo' izeneko saioa izango da gaur, dohainik, 20:00etatik aurrera, Leidor antzokian

## ESTI EZEIZA

Herenegun abiatu zen, Gainditzen elkarteak antolatutako IV. Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio Astea. Ekitaldien baitan, gaur *Pan-*

*tomimas Kutxo* izeneko mimo emanaldia izango da Leidor aretoan. Ikuskizuna iluntzeko zortzietan hasiko da eta doakoa izango da.

Bestalde, bihar, gaur egungo haur gorrek, Derrigorrezko Hezkuntzan bizi duten egoera zein den azalduko dute Bego Balerdi eta Blanca Hernandez hizlariak. Hau Kultur Etxean izango da, 19:30etik aurrera. Hitzaldia, gorren hizkuntza ulertzen ez dute-

nentzat, interprete bat ere izango da. Hona joateko ere ez da ordaindu behar, hau da, sarrera doakoa da.

Sentsibilizazio Astearen baitan, hitzaldi, antzerki emanaldi, kontzertu eta abarrez gain, kale erakusketa bat ere badago ikusgai. Hau dagoeneko jarri dago, San Frantzisko ibiltokian. Faretatik eskegita dauden egur xaflek gorrek dituzten komunikazio mugak islatzen dituzte.

# «Beharrezkoa da gainontzekoek ulertzeko borondatea jartzea ere»

**BLANCA HERNANDEZ** » Aransgi zentruko irakaslea

**Gizartea** » Ume gorrek ikastetxeetan duten egoeraz mintzatuko dira bihar 19:30etik aurrera, Tolosako Kultur Etxean

## E. EZEIZA

Blanca Hernandez, Aransgi, gorren zentruko irakaslea da. Bera eta Bego Balerdi izango dira bihar arratsaldeko ekitaldiko hizlariak **Zer da gaur azalduko duzuen?** Aransgi zentruko irakasle garen horretatik, zer egiten dugun azalduko dugu. Eta eskolaratze mailan gorrek bizi duten egoera zein den azalduko dugu.

**Aransgiko irakasleak zarete zuek, baina hezitzen dituzuen haurrak ikastetxe arruntetara doaz.**

Lehen, Aransgik gorrentzako zentru bereziak zituen. Baina orain, haur gorrek ikastetxeetan integratuak daudenez, gu hauetara joaten gara, lehen egiten genuen lana burutzerara. Hala, ikastetxe arrunt baten lana eta Aransgik egiten zuen heziketa berezia uztartzen saiatzen gara.

**Zein da zehazki zuek burutzen dituzten lana, interpretearena?**

Ez, hori da egiten den nahasketa

bat. Gorrentzako irakaslea saiatzen da gorrei erakusten, ahozko hizkuntza bat gara dezan. Horretarako prozesu luze bat eraman beharra dago. Esaterako, haurrak entzuteko gaitasun apurren bat baldin badu, hau lantzen irakasten dio irakasleak eta baita ahotsa hobeto artikulatzen ere. Bestetik, ikasgai arruntetan irakasten ari diren bitartean, gu ere hor egoten gara, haurrak gauzak ongi ulertzen dituen edo ez ikusteko. Honek ez badu ulertzen, gaia konplexua delako, guk beste modu batean azaltzen diogu beste irakasleak irakatsi nahi ziona. Gero hurrengo egunean, beste haurrekin batera jarrai dezan ikasgaia.

**Egungo ikastetxeak prestatuta al daude haur gorrek hezitzeko?**

Hartzeko bai, baina hezitzeke ez daude prestatuta. Oraindik ere Aransgikoak gara heziketa hori berderatzen dugunak. Gauzatzen dugun beste lanetako bat da, irakasle goa prestatzea eta egitarauak egokitzea. Eskolak egin behar duena da haur gorarentzako beharrezko bideak jartzea. Ikastetxea ez badago prestatuta, arazoa ez da haur gorra bakarrik, baita eskola ere.

**Nolako da haur gorren eta entzuten dutenen harremana?**

Hori beste arazo bat da, funtsa da



HITZA

komunikazio arazo bat dagoela. Horregatik, nahikoa al da gorrek ahal bezain beste ahozko hizkuntza garatzea, besteek uler dezaten, edo beharrezkoa da ere, gainontzekoek ulertzeko borondatea jartzea? Dena den, kontua da haurretaz ari garela eta hau oso zaila da beraiei eskatzea. Hala ere, zenbat kasutan harreman eta lotura oso bereziak sortzen dira haur gorren eta entzun dezaketenen artean. Askotan oso zaila da haurrei eskatzea ulertzeko borondate hori eta harreman hori jartzeko.

## Laburrak

**Miriam Mendoza ipuin kontalaria izango da gaur**

**KULTURA** » Gaur, arratsaldeko seietan, 3-6 urte bitarteko haurrei zuzenduta ipuin kontalaria izango da Errota Haur Liburutegian. Lan horretan ariko da Miriam Mendoza. Antolatzaileek, gurasoek ere parte hartzea gomendatzen dute. Izan ere, beraien esanetan, «kaukera pargabea da etxean umei ipuinak nola kontatu ikasteko».

**Sabino Etxeberriak irabazi du Urdiña-Txikiko saria**

**XAKEA** » Igandean Urdiña-Txiki elkarteak xake txapelketa jokatu zuten. Hogei jokalarik inguruk hartu zuen parte. Txapelketa liga sistema bidez jokatu zen, jokalarik eta partida bakoitzeko bost minutura. Bi jokalarik nagusitu ziren, Sabino Etxeberria tolosarra eta Josu Mujika ibarratarra, baina lehendabizikoak erdietsi zuen garaipena. Gazteen artean sailkapeneko lehen postuan Villabonako Aitor Villena geratu zen. Txapelketa Andrés Bustamanteri herriko xakearen alde egindako lanagatik emandako sariarekin amaitu zen.

**'Muerte en Venecia' filma izango da ikusgai bihar**

**KULTURA** » Thomas Mann idazle alemaniarraren eleberrian oinarritutako Luchino Viscontiren *Muerte en Venecia* filma izango da ikusgai bihar, Zine-forumean. Ohikoa den bezala, lehen saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena 21:45ean. Pelikula hau oskarretarako izendatuz izan zen. Filmea Frantzia eta Italiaren artean ekoiztua izan zen.

**Tolosako hiru taldek irabazi dute eta bik galdu**

**FUTBOLA** » Tolosako hitu taldek garaipena erdietsi zuten, lauren berdinketa eta bik galdu egin zuten. Hirugarren Mailakoek banako emaitzarekin amaitu zuten Portu-gaitearen aurkako partida. Neskek berri, 0-3 galdu zuten Hernaniren kontra. Jubenilen OHorezko mailakoek eta dibisiokoek Beti Gazteren kontra jokatu zuten eta biek ere bana berdindu zuten. Lurraldekoan bina berdindu zuten tolosarrekin Beti Gazteren aurka. Kadeteen Lehen Mailan, 1-8 irabazi diete Intxurrekoiei eta infantil txikiak 3-2 Sansekoiei.

## Zurea da hitza

info



## Arostegieta 16ren egoera txarra

**HIRIGINTZA** » Arostegieta 16ko eraikinaren erdiko habearen egoera txararen ondorioz, bizilagunak oraindik ezin dira etxera itzuli Tolosako Udaleko arkitektoaren esanetan, arriskutsua izan daiteke eraikin horretan egotea. Hala, asteburutik hona etxebizitzako bizilagunak Oria hotelean edo ahaideen etxeetan daude lo egiten. Rondilla kaleetik igaroz gero, ikusi daiteke nola ipini dituzten eraikinean hainbat burni hau eusteko. M. MUJIKA

## Hilberria

### LORENZO AMENABARRO ESNAOLA

'Lontxo'  
JAUNA

2007ko azaroren 13an hil zen, 94 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bendeikapena hartu ondoren.

-Golan bego-

Bere arimaren zuzendaria: Isidro Nazabal; emaztea: Leonita Maiz; seme-alabak: Joxemiel eta M<sup>a</sup> Jesus Auzmendi, Jexux Mari eta Maritxu Etxeberria, Miangel eta Axun Goikoetxea, Juan Mari eta M<sup>te</sup>txe Esnaola, Joxe Ramon eta Isa Garrido, Lourdes eta Joxeangel Aranburu, Ana eta Carlos Charro; bilobak: Eñaut eta Aitziber, Ainara, Ibai, Mikel eta Oihana, Xabier eta Izaskun, Ane, Manex eta Agurtzane, Zelai, Ander, Madalen, Eneko; birloba: Intza; ezkon anai-arrebak: Emilia Iraola, (Miguel Amenabarren alarguna), Pakita Maiz, Juan Maiz eta Guadalupe Iturrioz; ilobak, osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi zat bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzetzela GAUR ARRATSALDEAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, LEGORRETTAKO SALTATORE DONEYA parroki eliza egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Kale Nagusia, 16 - 2 C

Oharra: Gorputz belia Tolosako Funeraria Vascongadako Tanatorioaren egongo da, gaur goizeko 11:45ak arte



LEGORRETTAN  
2007ko azaroren  
13a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Babarrunaren Astean gaude murgilduta, eta igandean, Lehiaketa Gastronomikoa egingo dute, Gure Kaiolak antolatuta; babarrunari bultzada bat emateko hasi ziren antolatzen duela hogeitortu

## Zaindu behar iraungo badu

### ERREDAKZIOA

**B**abarruna Euskal Herriko nekazaritza-giroan onarpen handia daukan elikagai da, ez dago zalantzarik horretan. Tolosan edo Tolosaldean, gainera, pisu berezia du, nolabaiteko ikur bihurtzerainokoa, alegia.

Gure Kaiola elkarteak «babarrunak gurean duen garrantziaz arduratuta», haren kalitatea nola zaindu eta nola bultzatu pentsatzen hasi ziren eta, ondorioz, Tolosako babarrunaren inguruan hainbat ekitaldi gastronomiko eta kultural prestatzea erabaki zuten, «produktoreengan elikagai hori ekoizteko gogoia piztu nahian». Horrelaxe jaio zen Lehiaketa gastronomiko bat antolatzeko asmoa.

### 1987az geroztik

Urte garrantzitsua izan zen 1987a Gure Kaiolarentzat, bertako bazkideek lehendabiziko Babarrun Lehiaketa Gastronomikoa antolatu baitzuten. Lehiaketa hura eta hurrengo urtekoa Beotibar pilotalekuan egin zituzten, eta gainerakoak ferialekuan.

1995. urtean, beste pauso bat eman zuten, izan ere, Tolosako Udalak babarrunaren inguruan antolatzen duen festaren baitan sartu zuten geroztik Lehiaketa Gastronomikoa. Hala, Babarrunaren inguruko festaren barnean aipatzekoa da, Lehiaketa Gastronomikoaz gain, larunbat honetan bertan izango den azoka berezia, edota babarrun ekoizleen txapelketa berezia. Azken honetan irabazle izan den babarruna erabiltzen dute, hain zuzen ere, hurrengo eguneko lehiaketako parte-hartzaileek.

### Nork prestatu babarrun onenak

Lehiaketa egiteko modua ere aldatuz joan da urteek aurrera egin ahala. Lehen zortzi urteetan lehiaketako sukaldariak prestatzen zuten babarruna Gure Kaiolako kideek aukeratu eta erosten zuten. «Oroitzen onak ditugu guztia (zakuraketa, jostaketa, markaketa...) etxean egosten zen garai hartaz», diote antolatzailuek. Urte haietako hornitzaileen artean, Hernialde,



Josu Carabelos eta Francisco Javier Basañez iazko irabazleak. N. LIZARTZA

Bedaio, Irura, Beizama, Beasain, Amasa, Urkizu, Berastegi, El-duain, Tolosa, Alegi, Asteasu, Al-tzo, Gaztelu, eta beste herri batzuetako baserriak gogoratzen dituzte. Lehendabiziko urtean babarrunak elkarteko sukaldariak prestatzen zituzten, Gure Kaiolako sukaldari talde txiki baten esku-tik, «eta gure etxekoandreen ezin estimatuzko laguntzarekin».

Hogei bat inguru sukaldari hartu ohi dute parte lehiaketan: Tolosakoak eta Gipuzkoako beste hainbat herriakoz izaten dira,

eta baita Araba, Bizkaia eta Nafarroatik etorritakoak ere. Atzerri-tik ere etorri izan dira lehiaketan parte hartzera.

Sukaldarien arteko lehia amaitu eta gero, ferialekuan bertan babarrun-bazkaria egin ohi dute 500 laguntzat, gutxi gorabehera. «Elkarteko kideak zerbitzari bihurtzen gara, laguntzeko prest, belarriak erne, begiak zabalik, dena oso ondo atera dadin», azaltzen dute.

1990eko otsailaren 18an Tolosako Babarrunaren Kofradia eratu

zen, eta «ordutik haiekin lotura estua daukagu eta elkarlanean aritzen gara, lortu nahi ditugun helburuak bat datozelako».

### Aurtengoa, XXI. Lehiaketa

Aurten XXI. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa egingo dute, eta urterto bezala, bazkari herrikoa antolatuko dute. Igande honetan izango da, eta azken urteetan bezala Ferialekua egokituko dute horretarako.

Ederki jateaz gain festa giroaz gozatzeko aukera ere izango da, Nekaezinak txarangakoak han izango baitira euren doinuekin. Bazkarira joan nahi duenak 20 euro oradaindu beharko du txartel bakoitzeko; hauek Santa Maria kalean kokaturik dagoen Gure Kaiola elkartearen egongo dira salgai, astelehenetik ostiralera 19:30etik 21:00 etara. Egoitzan ezezik, aipaturiko ordutegian 607 672709 telefono zenbakira dei daiteke erreserba egiteko. Hauxe izango da igandeko herri bazkari-rako prestatutako duten menua: Iberiar zerriken dastaketa (Altu-na txarkuteria); Tolosako babarrunak, aza, odolki, urdai eta Ibar-rako Txumitxa piparrekin; postrea (Ezeiza Etxea); ogia (Opil); ura (Insalus); ardoa (Bodegas Fernandez Pierola beltza, eta Bodegas Orvalaiz gorria); kafea, likorea eta pu-rua.

Historia luzea du, beraz, Babarrunaren Lehiaketa Gastronomi-koak. Gure Kaiola elkartearen esanetan, «lehiaketa hau, gaur egun, tolosarrentzat herrian burutzen den ekitaldi nabarmenetako da».

## S Soka motzean

### «Realaren igoera kontatzea gustatuko litzaidake»

#### IÑIGO ASENSIO

Kazetaria eta musikaria

#### HARRIET BELLOSO

Iñigo Asensio (Tolosa, 1985) herriko aurpegiarik ezagunetarikoa bat bihurtu da. Txirrindulari probak aurkezten hasi zen, eta gaur egun Teledonosti katean Gipuzkoako kirolari buruzko saio bat aurkezten du. Homo Demens pop-rock taldeko abeslaria eta piano jotzailea da baita ere.

#### Noiz eta non hasi zinen kazetaritza munduan?

18 urterekin TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN, ordurako urte batzuk neramatzan kirol aurkezpenak egiten.

#### Ze komunikabidetan sentitzen zara erosoen?

Paradoxikoa bada ere, irratian sentitzen naiz gustukoena nahiz eta umera arte prentsan eta telebistan aritu naizen gehien.

#### Zein kirolariarekin hartuko zenukeen kafetxo bat?

Kafe bat baina gehiago, trago batzuk hartuko nituzke David Millar txirrindulari eta filosofoarekin.

#### Ze albiste ematea gustatu litzazuke?

Realaren igoera kontatzea gustatuko litzaidake, nahiz eta txinatarren etorrera lehenago kontatuko dugula dirudien.

#### Musika talde bat eta abesti bat.

Quique Gonzalez eta abestia, Sting-en Desert rose.

#### Akordeioa, gitarra edo pianoa?

Orkestrakideek akatuko nauten arren, pianoarekin geratzen naiz.



I.T.

## L Laburrak

### Otaola ustez mehatxatu zuena deklaratzera deitua

**LIZARTZA** ● Jesus Alonso fiskalak Regina Otaola ustez mehatxatu zuen lizartzarrek inputatu bezala deklaratu dezan eskatuko dio Espainiako Auzitegi Nazionalako Santiago Pedraz epaileari. Pasa den irailaren 7an, Lizartzako festan baitan, Regina Otaolak ikurrina, Espainiako bandera eta herrikoa bertakoa altxatzea eskatu zuen egunean izan ziren ustezko mehatxuhoriek.

### Geldialdiak egingo dituzte bihar osasun zentroan

**TOLOSA** ● Bihar Osakidetzak Gernikako Arbolan duen egoitzan, hau da, Tolosako anbulatorioan, langileek konzentrazioa egingo dute 09:00etatik 10:00etara bitartean. Geldialdia, berriz, 3 ordukoa izango da, 08:00etatik 11:00etara. Konzentrazio eta geldialdi hauekin, sindikatuek osakidetzako «langileek hitzarmen duin bat izteko negoziazioa izate» ari dira ekitzen.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## 33 Eremuko etxebizitzaren zozketarako behin-behineko zerrenda onartu du Udalak

**Zizurkil** » Zerrenda ikusi nahi dutenek udal bulegoetan edo 'www.zizurkil.org' helbidean egin dezakete

### ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak 33 Eremu gisa ezagutzen den antzinako Lizarain zerrategiaren lurretan eraikitzea aurreikusitako babes ofizialeko 33 etxebizitzaren zozketarako onartu diren eta ez diren behin-behineko zerrenda onartu du. Zizurkil darrrek hil honen 26ra arteko epea izango dute beharrezkoak jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Zerrenda ikusteko interesa duten guztiak udal instalazioetan edota [www.zizurkil.org](http://www.zizurkil.org) helbidean ikusi eta kontsultatu ahal izango dute 33 Eremuan babes ofizialeko

etxebizitza, garaje eta trastelekuak izateko aukera dutenen zerrenda, eta eskabide batzuk onartuak ez izateko kontuan hartu diren arrazoiak. Behin-behineko onarpen honekin etapa berritatu irekitzen da antzinako Lizarain zerrategiaren egoitza gune bat eraikitzeko hasitako prozesuaren barruan.

### Eraikuntza lanak, 2008an

Zizurkilgo Udalak «eraikuntza lanak datorren urtean hastea» bermatzen du, eraikitzeko lizentzia emateko eta ondoren Eusko Jaurlaritzaren aldetik babesturiko etxebizitza kalifikazioa lortzeko behar diren hainbat eta hainbat izapide bete ostean. Aipaturiko lizentzia eta kalifikazio guztiak eskuratutakoan, babes ofizialeko etxebizitza horien zozketa egin ahal izango da. Hasierako epeeki izandako atzerapena dela-eta,

Udalak argitu du proiektu honetan aurrera egiteko behar diren dokumentuen kudeaketa ahal den neurrian arintzeko ahalegina egiteko «konpromiso irmoa» hartu duela.

### Atzerapenak

Alabaina, «izapide guztiak ez dira Udaleko kudeatzaileen erantzukizuna», azaldu du Udalak. Beste erakundeek eta sustatzaileak «eskakizunei erantzuten hasieran aurreikusitako denbora baino gehiago eman dute». Horrek guztiak «proiektua gauzatzeko prozesua motelteza eta nahi baino gehiago atzeratzea eragin du», zehaztu dute Udaletik.

Hala ere, Udalak «proiektu honen aldeko apustuari» eusten dio, eta 33 Eremuan etxebizitzak eraikitzen hasteko behar diren dokumentu guztiak lortzeko ahaleginek egingo dituela azaldu du.



Gaztetxean egindako DVD emanaldian 25 lagun inguru izan ziren. HITZA

## AHTri buruzko erakusketa ikusgai aste honetan kiroldegian

**Anoeta** » Informazio kanpainaren bultzatzaileek balantze positiboa egin dute orain arteko ekitaldien inguruan

### ERREDAKZIOA

AHTren inguruko informazio kanpainarekin amaituko dute aste honetan Anoetan erakusketa batekin. Erakusketa ikusgai dago kiroldegian. Bertan AHTren inguruan bildutako informazio guztia ikusi ahal da.

Informazio kanpainaren baitan informazio banatzeko bide ezberdinak erabili dituzte, eta horietako bat izan da kaleratutako DVDa. Bertan, «AHTren ondorio orokorrez, AHTk Anoetan egingo litzukeen kalteez eta abenduaren 2ko herri galdeketaz hitz egiten da», azaldu dute kanpainaren bultzatzaileek. Aurreko astean herriko elkarte ezberdinetan emanaldiak egin zituzten.

### Buzoiak

Aurreko astean DVD emanaldia egin den lekuetan eta kiroldegiko erakusketan buzoi bat egongo da jendeak gai horren inguruan dituen zalantza eta galderak bertan sar dituzan. Zalantza eta galderak ho-

riek erantzuten saiatuko dira datorren asteko eztabaida-prozesuan.

Trenaren «inpaktu bisuala, zarata eta kontsumo energetikoaren» inguruan AHTren obrak irudikatatu dituzte herriko kaleetan. Inpaktu bisuala eta zarata irudikatzeke beste ekintza bat kanpainaren bultzatzaileek eraikitako trenaren herriko kaleetan zehar ibiltzea izan zen, «trenaren suposatuko lukeen zarata jasangaitzaz lagunduta». Bestalde, kontsumo energetikoa irudikatzeke, ordu erdiz herriko plazako eta San Juan kaleko argiak itzali ziren, «posible baita tren horren kontsumo energetikoak ondorio hori izatea». Bi ekintza horiek hurrengo egunetan ere errepikatuko dituzte.

Orain arteko informazio kanpainaren balantze positiboa egin dute, egin berri duten batzarrean. Batetik, «AHTk eragingo dituen kalteen inguruko informazio asko banatu delako herritarren artean» eta bestetik, «hasieran markatzen zen egutegia ondo aurrera eramaten ari garelako», azaldu dute.

### LAB AHTren aurka

LAB sindikatua AHTrik ez izenburupean triptiko bat ari da etxeko etxe banatzen. Bertan sindikatuak AHTren aurka egotearen arrazoiak zehazten ditu.

## 'Mintzalaguna' egitasmoa abian jarri dute Villabona eta Zizurkil

### Villabona-Zizurkil

Bi udaletako Euskara Zerbitzuek mintzalagunak behar dituzte, astean behin euskara ikasleekin egoteko

### ERREDAKZIOA

Villabonako eta Zizurkilgo Euskara Zerbitzuek *Mintzalaguna* egitasmoa jarri dute martxan. Euskara ikasten ari direnei edota gaur egun ikasle izan gabe, euskaraz hitz egiteko ohitura eta erraztasuna lantzeko nahi duten herritarrei kaleratu dute euskaraz hitz egiteko konfiantza hartzen laguntzea da helburua. Ho-

rretarako, hiru laguneko taldeak osatuko dira, bi euskara-ikasle eta laguntzaile euskaldun batez osatuta. Talde hauetako kideek konpromisoa hartuko dute astean behin, ordubetez-edo gutxienez, euskaraz aritzeko elkarrekin, kafe bat hartu, kirola egin, paseatu edo nahi duten jarduerak egiten duten bitartean.

### Euskara kalean erabiltzeko

Era honetan, laguntzaile euskaldunak euskara-ikasleei lagunduko die euskaraz aritzeko erraztasuna hartzen, eta gainera, ikasleak ohitura hartuko du euskara euskaltegiko gelatik kanpo ere erabiltzen.

Horrez gain, egitasmo honi esker, euskara-ikasleak euskaraz aritzeko harreman-zirkulua zabalduko du.

Horrela, bi udaleko Euskara Zerbitzuek laguntzaileak behar dituzte *Mintzalaguna* egitasmoa. Haien eginkizuna izango litzateke astean behin bi euskara-ikasleekin geratzea, eta, ordubetez edo, euskaraz aritzea.

Gainera, Villabonako eta Zizurkilgo udalek euskararen aldeko konpromiso hori sarritu dute, eta kurtsioan zehar antolatzen dituzten antzerki eta bestelako kulturarekintzetarako sarrerak emango dituzte.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko emakumeak behar da. Interesatuak deitu 620 6191 02 zenbakira.

### ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Lekuberrin 104 m<sup>2</sup>ko etxebizitza alokatzen da, sei hilabetetarako. 400 euro. Interesatuak deitu 679 20 14 60 telefono zenbakira. Arratsaldeetan.

## Jubilatuak bisita Kantabriara

IKAZTEGIETA ■ Ikaztegieta jubilatuek bidaia bat egin dute aurreko hilean Kantabriara (Espainia). Egun pasa egin zuten lurralde horretako hainbat herrialde bisitatu: Santoña, Isla eta Castro Urdiales, hain zuzen. Argazkian, jubilatuek ikaztegieta, atzean Isla herriaren parajeak dituztela. HITZA





Ikaztegiatiko Herri Krosean urtero 200 lagunek hartzen dute parte. Aurretik haurrena egiten ohi dute. HITZA

## Udazken Kulturalaren baitan, ekitaldi ugari azaroan eta abenduan

**Ikaztegieta** » Igandean Kros Herrikoa, eta tartean Ibaialde erakusketa eta Zelanda Berriari buruzko ikus-entzunezkoa daude

### NEREA URBIZU

Ikaztegiatan udazkenean zehar ekitaldi ugari prestatu dituzte, eta Kultur Aste erraldoi baten antzera izango da: Udazken Kulturala deitu diote. Bihartik hasita azaroko 5 egunetan zehar eta abenduko 7 egunen baitan izango dira guztiak. Mendia, kirola, gastronomia, musika eta orokorrean Euskal Herriko kultura jorratuko dituzte egun hauetan guztietan.

Bihar Ibaialde erakusketa ikusteko aukera izango da liburutegian, eta larunbatean, berriz, Zelanda Berriari buruzko ikus-entzunezkoa, liburutegian ere, 20:00etan.

### Kros Herrikoa eta Olaberria

Ikaztegiatiko XVII. Kros Herrikoa igandean izango da. Herrigintza kultur kirol elkarteak antolatzen du urtero, eta 200 bat lasterkari izaten da urtero.

11:00etan hasiko da krosa. Izena emateko bi bide daude aukeran: [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) webgunean (6 euro) edo bertan, lasterketaren aurretik, 09:00etatik 10:30era bitartean (8 euro). Ondoren hamaketakoa izango da denentzat, kiroldegian bertan. Sariak lehen 3 emakume eta gizonentzat, lehen baterano emakume eta gizonarentzat eta herriko lehen emakume eta gizonari emango dizkiete.

Helduentzako krosaren aurretik haurrentzat ere izango da lasterketa, 10:45ean. Honen helburua parte-hartzea sustatzea da.

### » EGITARAUA

#### Azaroak 15, bihar

■ **Arratsaldean.** Liburutegian Ibaialde erakusketa.

#### Azaroak 17, larunbata

■ **20:00.** Zelanda Berria ikus-entzunezkoa kiroldegian: Jose Ramon Agirre (Marron).

#### Azaroak 18, igandea

■ **10:45.** Haurrentzako krosa.  
■ **11:00.** Ikaztegiatiko XVII. Herri Krosa.  
■ **Ondoren.** Leire Olaberria txirridulariari omenaldia (Udalak eta Herrigintza elkarteak).

Sariak banatu aurretik Leire Olaberria pistako elite txirridulariari omenaldia egingo diote. Lehenik Agurra dantzatuko dute bere omenez, bigarrenik, lore sorta bat emango diote eta bukatzeko herritarren partetik detailetxo bat emango diote, bere ibilbideagatik eta herria ezagutzera emateagatik. Ondoren, bazkaria izango dute elkarteak. Udalak eta Herrigintza elkarteak antolatuta dute omenaldi hau.

### ZELANDA BERRIA BERTATIK BERTARA

Larunbatean Zelanda Berriari buruzko ikus-entzunezkoa izango da liburutegian. Jose Ramon Agirrek egindakoa da, eta Kutxa da sustatzaile eta finantzailea. 40 minutuko izango da.

Honetan maoriei egingo diete lekua, eta baita naturari ere. Askotariko paisaiak dituen lurraldea da. Iparraldeko uhartea maorien lurraldea da, sumendiak ditu lur geotermikoen eremua. Hegoaldekoa, berriz, Alpetako mendikateak zeharkatzen du eta egundoko lautadak isurtzen dira haren hegoaldean.

Animalia bitxiak, mendikate erraldoiak itsasotik ateratzen, sumendiak eta itsas fauna aberatsa ditu Zelanda Berriak. Ikus-entzunezko honetan naturaren indarra erakutsi nahi dute.

#### Azaroak 24, larunbata

■ **11:00.** Euskal Jaia: artisautza, nekazal produktuak, txalaparta, zarpantzarzak, bertsolariak, trikitilariak, dantza, gaztainak, talogileak, sagardoak kupeletik...  
■ **Oharra.** Baserritarrez jantzita azaldu behar da.

#### Azaroak 30, ostirala

■ **19:00.** Ardo dastaketa ikastaroa: Herrigintza elkarteak antolatuta.

#### Abenduak 1, larunbata

■ **20:00.** Ogiyik karri etzuz semia antzerkia kiroldegian.

### Igandeko bazkaria

Aurten ere Herrigintza Elkarteko bazkideen arteko bazkaria izango da igandean, herri krosarekin batera. Izena emateko azken eguna bihar da, Herrigintza elkartearen bertan. 30 euroren trukekoa izango da bazkaria (diru kutzara bota behar da).

Menua honakoa izango da: urdaiazpikoa, zainzuriak, langostinoak, bakailoa saltsan, azpizuna, postrea eta kafea.

## Laburrak

### Sexua eta zahartzaroa lotzen dituen hitzaldia

**ALBIZTUR** » Albizturren bihar zahartzaroa eta sexua lotzen eta jorrazten dituen hitzaldia izango da. Berez urriaren 18an izan behar zen, baina ezin izan zuten burutu. Kutxa fundazioak antolatuta du hitzaldia eta 17:00etan izango da Kultur Etxean.

### Finantzei buruzko hitzaldia Kultur Elejiraren baitan

**BALIARRAIN** » Baliarraingo Kultur Elejiraren baitan bihar Gipuzkoako Kulturaren eskutik hitzaldi bat izango da. Kasu honetan, 19:30ean kultur gelan *Finantzak eta zu. Kutxak zure zalantzak argituko ditu* hitzaldia izango da eta hainbat zalantza argitzeko balioko du: nola inbertitu dirua, aurreikuspen planak, aseguru motak...

### Herriko bizimodua argazki proiektzio larunbatera arte

**ALEGIA** » Azaro Kulturalak hainbat ekitaldi antolatuta ditu hilabetearen zehar Alegian. Kasu honetan, Kultur Etxean etzi arte *Alegiko bizimodua* argazki proiektzioa dago, 19:00etatik 20:30era bitartean. Larunbatean, berriz, 11:00etatik 12:30era izango da. Alegiko argazkizaleen taldeak prestatu du guztia. Gogoratu ere, hilabete osoan zehar Patxi Renobalesek egindako herritarren bizimodua islatzen dituzten argazkiak daudela ikusgai jubilatuaren tabernan, asteartetik igandera.

### Helduentzako hitzaldian begiei buruz ariko dira

**AMEZKETA** » Bihar Amezketan Adinekoren Eguna ospatuko dute. Kultur Asteak tarte berezia eskaini die helduenei, eta 18:00etan hitzaldia izango da goiko lokalean, begiei buruzko informazio gehiago emateko. Ondoren, merienda izango dute han bertan.

## EAEren mozioa Udalean onartu egin dute, lau bozka aldeko izanik

**Amezketaketa** » Plenoan onartu zuten, alkateak «plenoetan politika gaiak aztertzeko gunea ez dela» esan ondoren

### ERREDAKZIOA

EAEren mozioa Amezketako Udalak onartu egin du, lau bozka alde izanik. Mozioan Espainiako Gobernuak eta PSOEk «23 militanten abertzale atxilotuta euskal independentismoaren aurkako eraso bortitza» salatzea eskatu zuten. Bozkatu ondoren 4 baiezko botoekin eta 3 kontrako ezezkoekin mozioa onartuta geratu zen.

Hori horrela honako mozioa aurkeztu zuen EAEk: Udal honek urriaren 4an Seguran egindako atxilotetak «irmoki salatzen ditu» eta «kartzelaraututako 17 militanten abertzaleen berehalako askatasunarekin batera independentismoaren aurkako kriminalizazioari amaiera ematea exijitzen du».

Irakurri ondoren alkateak aipatu zuen Udal Bilkura «ez dela politikako gaiak aztertzeko gunea eta ez duela hemendik aurrera moziorik ekartzea nahi Udal Bilkura ez-taibadatzeko».

### Kulturari dagokionez

Amezketako historia eta ondareari buruz, Oterminek ideia bat du eta Udalaren kolaborazioa eskatu zuen. Herriko historia eta ondare ezagutzeko berak idatziko ditu testuak. Adibidez, Fernando Amezketarrari buruzko testu bat idatziko du liburuxka batean eta testua argazkiekin jantzi nahi du, baina herritarrekin modelo gisan.

Webgunea martxan da baina oraindik «informazio asko falta da» sartzeko. Informazioa sartzeko e-mail ez daude bidali behar da.

## “Natura bezain eraginkorra”



### PEUGEOT 308 berria

**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban auzoa, 14-A  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38  
[tolosa@tolosa.redpeugeot.com](mailto:tolosa@tolosa.redpeugeot.com)



**G** **Gutunak****Udaletxearen osaketaren inguruko Ibarako EAE-ANVren balorazioa**

Hauteskunde egun berean, emaitzak ezagutu aurretik EAE-ANV alderditik bilera batetarako deialdia luzatu genien bai EA zein EAJ-ri, PSOEren gobernuak hainbat zerrenda legez kanpo jartzean (artean Ibarako ASB eta ANV) sortutako egoera antidemokratikoa iri soluzioak bilatzeko asmoz.

Eskaeraren helburua argia eta zehatza zen bere burua demokratizatzen duen ororentzat ibarretarrek hautetsontzietan bozkaturiko emaitzak errespetatzea. Eta badaude horretarako legezko formulak, hain zuzen ere Hautes Legearen 182.2 artikulua aplikatzea. Artikuluak dio alderdi legal batetako zinegotziak bere postuari uko egin eta bere atzetik doazena ere uko egitean (zerrenda horretakoa), alderdi legal horrek hutsunea edozein herritarrekin beteko luke-

ela (kasu honetan herritarra aukatzea ilegalizatutako alderdiari legokioke gure ustez).

Modu hain erraz, legezko eta batez ere demokratikoa aintzat hartuz konponduko litzateke korporazio honek bere osaketa egunetik duen legitimitate falta (defizit demokratikoa), izan ere 11 zinegotzietatik 5 ez dira herriak hautatuak izan. Horrela, Udaleko gaian 710 ibarretar ordezkaritza legitimoak pairatzen dugun bazterketa politikoa (ilegalizatua izan arren Ibarren bozkatuena) gaindituko litzateke.

Proposamen zehatz honi EA, EAJ zein Ezker Batuak emandako ezezkioa irmoa izan zen.

Ibarren egindako lehen plenoaren ondoren (Udal osaketa Diputazioan egin baitzen), EAJk zinegotzi legitimoen parte hartzeko aukeren eta erabakitze eskubidearen inguruan hitz egiteko nolabaiteko borondatea agertu zuen. Ordudanik 5 zinegotzi legitimo

horien parte-hartzea eta erabakitze eskubidea bermatze aldera, formula zehatzak bilatu nahian ibili gara eta esan behar dugu bide horretan EAk ere konpromisoak har zitzan saiatu garena.

Ein batean parte-hartzea bermatzen duten formulak aurkitu ditugu, beti ere alderdi politikoez praktikan jartzen duten borondatearen arabera. Erabakitze eskubidea bermatuko luketen formulak egon badaudela argi ikusi dugu guztiok bide honetan zehar, baina gauza guztietarako bezalaxe borondatea behar da urratsak emateko. Ibarako EAJ-ren jarraera EArena baino irekiagoa izan arren (ezezko konstante batean mantendu da une oro), EAE-ANVren zinegotziok ez dugu izan erabakitze eskubidea 4 urte-tan zehar.

Parte-hartzeari dagokionez urriaren 30ean burutu zen azken pleno dugu aipagai. Zinegotziak iristen zihozten heinean alkate-

ren bulegoan sartu ziren, 10 minutu inguru bertan egonaz eta gure parte-hartzea inongo mementuan eskatu gabe. Hortik aurrerakoa oso mekanikoa izan zen, beraien artean akordioetara iritsiz eta gure parte hartzeko aukera hutsaren hurrengo izanaz. Gure ustez erabakiak, edozein motatakoak izan ere, denen artean eztabaidatu ondoren hartu behar dira. Hori da denen parte-hartzea errespetatzeko hartu beharreko jarrera.

Pleno amaieran berriz, EAE-ANVren zinegotziok urriaren 26an sartu genuen mozioari buruz galdetu genuen, Batasuneko Mahai Nazionalako kideen espere-ratzeari erreferentzia egiten ziona. Gure ezustetarako mozioa ez zen aztertu eta emaniko arrazoiak mozioaren sarreraren konstantziarik ez zutela izan zen. Jarraian sarrerazigilua zegokion zenbakiarekin erakutsi genuen, mozioa aurkeztu zela ziurtatu nahian. Eztabaidabaten ondoren non irainak entzun

genituen, hala nola bereziak garelako, erradikalak garelako alde egin genuen, beraietako inork mozio horren berri ez zutela esan baitzuten, baita mozioaren inguruan hitz egin nahi ez zutela aipatu ere.

Honen guztiaren aurrean norberak bere ondorioak ateratu zituela. Gure aldetik, ezker abertzaleak beti egin duen bezala Ibarren alde lanean jarraituko dugu ibarretarekin batera, ilegalizazio, oztopo eta batzuk jartzen dituzten trabak guztien gainetik. Eta bestalde indar gehiagoz salatuko ditugu kargu publikoan lapurretak, botue-maileen nahari bizkar ematea eta hauteskundean bozka eman zuten ia jendarte erdia erabakiak hartzeko guneetatik kanporatu nahi izatea.

**Aitor Garmendia, Mari Jose Ruiz, Hanot Karrera, Edure Urdanpilleta eta Iban Galarraga (Ibarako EAE-ANVren kideak).**  
Ibarra.

# Atzotik eta hilaren 25a bitarte Kultur Astea Gaztetearen eskutik

**Ibarra** » Gaztetearen XIV. urteurrena ospatzeko kartel erakusketari antolatutako dute, egitarau opor batez lagundurik

**ASIER IMAZ**

Ibarako Gazteteak hamalagarren urteurrena ospatzen du hila-bete honetan. Gazte Asanbladako Kultur Astea antolatutako egitarau opor eta anitzez beterik; erakusketak, hitzaldi, gazte-afari, kontzertu eta mendi irteerak egongo dira, besteak beste. «Denok ez gaudela» ere aipatu dute Asanbladako kideek, «preso politikoak ez baitira egongo hitzaldi, afari eta kontzertuetan, Espainia eta Frantziako espetxeetan bahituak baitituzte».

**Kartel erakusketak**

Atzo ipini zituzten hormetan, 1983. urtetik hona plazaratu eta kaleratu ikusi diren kartelak, beti ere Gaztetearekin zerikusia dutenak.

Kartel erakusketak eman dio hasiera Kultur Asteari. Amaiera ere, azaroaren 25ean, erakusketak emango dio. Lehen egunetan kartelak Gaztetearen kokatuak egongo badira ere, Gazte Asanbladako kideek, «mugikortasuna» eman nahi diote erakusketari, «eguraldi ona egiten badu egun hauetan, Atari kanpoan edo plazan bertan jarri nahi dugun erakusketak».

100 kartel inguruk osatzen dute erakusketak. Hauen garapena eta



Ibarako Gaztetearen ormetan 1983. urtetik honako kartelak egongo dira erakusgai Kultur Astearen barnean. A. IMAZ

erabilera asko aldatu direla aipatzen dute antolatzaileek: «kartel gehienak berriak dira baina 1983. urtekoak ere baditugu. Gazte Fes-tak iragartzen ditu kartelak eta txuri beltzean eta hizki mota batekin egina dago. Garaiak asko aldatu dira eta gaur egun erabilera handiagoa ematen zaie kartelei. Horregatik bildumaren zati handiena azken urteetakoekin osatua dago».

**'Coca-Colari ez!'**

Gaur 19:00etan *Euskal Herriak Coca-Colari ez!* ekimena aurkeztuko dute Gaztetearen. «Mundu mailako ekimena da hau. Israelen politikaren aurkako taldeek abian

jarri zuten eta Euskal Herriko gazte asanbladetatik aipatu izan digute. Ibarako Gaztetea Coca-Colari gabeko gunea denez eta jendeak horren inguruan galdetu duenez, hau da, ea Coca-Colari zergatik egin behar zaion boikota, aukera ona iruditu zaigu Kultur Astearen ekimen hau aurkeztu eta eztabaidatzea».

**Asteburuan InerShow taldea**

Azaroaren 16ean, etzi hain zuzen ere, 21:00etan gazte-afaria egingo dute Xeplan. Izena emateko zerrendak Gaztetearen aurkitzen dira. Afariaren ondoren, 23:00ak aldera, InerShow talde kataluina-

rrak kontzertua eskainiko du. Gazte Asanbladako kideek jakinarazi dutenez, «talde honek kantu herrikoiak jotzen ditu, bertsoak hain zuzen ere. Horretaz gain, eurek kantu zerrenda bat bidali digute eta guk Gaztetearen, Atari Tabernan eta Sendi Ekintzan jarri ditugu. Jendeak nahi duen kantua aukera dezake eta ondoren zerrendak taldeko kideei itzuliko dizkiegu, aukeratutako kantak jo dituzten».

Igande honetan berriz, 16:30ean Mahai Tennis Txapelketa eta ondoren gaztain-jatea egingo dituzte Gaztete kanpoan. Herritarrek ekitaldietara gonbidatu dituzte.

**» EGITARAUA****Azaroak 14, gaur**

■ **19:00.** Hitzaldia: *Euskal Herriak Coca-Colari ez!* ekimenaren aurkezpena Gaztetearen.

**Azaroak 16, etzi**

■ **21:00.** Gazte-Afaria. Bertan parte hartzeko izena Gaztetearen eman behar da.

■ **23:00.** Kontzertua: Iner-Show talde bartzelonarrarekin Gaztetearen.

**Azaroak 18, igandea**

■ **16:30.** Mahai Tennis Txapelketa.  
■ **Ondoren.** Gaztain-jatea egingo da Gaztete kanpoan.

**Azaroak 21, asteazkena**

■ **19:00.** Hitzaldia: *Drogak lanugorritan.* Askagintzaren eskutik.

**Azaroak 24, larunbata**

■ **08:30.** Mendi irteera: Gaztetea-Uzturre-Belabieta-San Lorentzo ibilbidea egingo dute. Itzulera autobusez egingo da, 14:00ak inguruan.

**Azaroak 25, igandea**

■ **18:30.** Zine-kluba egongo da Gaztetearen.  
■ **Ondoren.** Gaztetearen dauden kartel guztiak bilduko dira, erakusketari amaiera emanaz.

**Oharra.** *Bide Berriak-en jarrera eta erabakiak argitze aldera gutuna, Joxe Martin Deustoz gain, Mari Kruz Agirre, Asier Etchezarreta, Mi-lek Ugartemendia, Mario Argaña, Izaskun Arrospidea, Gurutz Herrero, Amaia Arrospide eta Imanol Alfonso sinatzen dute.*



Udalaren proiektua da hau. N. GARZIA

## Etxebizitzaren behararen inguruko datu bilketa bi astez atzeratu dute

**Etxebizitzak** » Herritarrek datu bilketan parte hartzeko ordutegi bat jarri du Udalak, goizez edo arratsaldez

NAIARA GARZIA

Udazkenean Leitzako Udalak abian jarri zuen proiektua, etxebizitzaren inguruan herritarrek dituzten beharren iritzia jasotzea, alegia, luzatzea erabaki du Udalak, beste bi astez. Epe luzaketa honen bitartez, herritarrek beste bi aste izanen dituzte, aste hau eta hurrengoa, udalaxterara joan eta soziologoaren etxebizitzaren inguruko galderari erantzuteko.

### Zuzenean udaletxera

Kasu honetan interesatuta daudenek zuzenean udaletxera jo behar dute. Egun hauetarako Udalak ordutegi zehatz bat jarri du. Azkeneko eguna datorren astean izanen da, larunbatean, hilaren 24ean.

### » ORDUTEGIAK

- **Asteazkena, 14.** 10:00etatik 13:30era.
- **Osteguna.** 17:30etik 21:00etara.
- **Astelehena.** 10:00etatik 13:30era.
- **Asteartea.** 17:30etik 21:00etara.
- **Asteazkena.** 10:00etatik 13:30era.
- **Osteguna.** 17:30etik 21:00era.
- **Ostirala.** 10:00etatik 13:30era.
- **Larunbata.** 10:00etatik 14:00etara.



Europako 26 hautagaien artean aukeratu zuten Plazaola Partzuergoa HITZA

# Plazaolak Natur Bideen Europako saria irabazi du

**Gizartea** » Jose Maria Aierdi Plazaola Partzuergoko lehendakariak jaso zuen saria, Madrilen

### ERREDAKZIOA

Madrilen azaroaren 7an ospatutako III. Natur Bideen Europako Sariaren zeremonian Plazaola Natur Bideak garapen eta turismo kategoriari saria irabazi zuen. Partzuergotik azaldu dutenez, «hautagaitza bidaltzeko eskatu ziguten. Itxaropena geneukan, baina ez genuen irabaziko genuenik uste».

Sari banaketa IV Turismo eta Osasunaren Jardunaldi Teknikoaren barruan egin zuten. Jose Maria Aierdi Plazaola Partzuergoko lehendakariak hitzaldi bat eman zuen Natur Bideetako turismo sustapenari buruz, baita teknologia berrien eta marketing-aren inguruan ere.

### Merezitako saria

Sari honekin partzuergotik azaldu dutenez, «azkeneko urteetan inguru hau berreskuratzeko egin

dugun ahalegina kontutan hartu izan dela ikusi dugu». Sariak zera hartu du kontuan, kudeaketa sistema (partzuergoan bertako erakunde eta enpresa pribatuak parte hartzen dute) eta Natur Bidearen inguruan bultzatu duten eskaintza turistikoak.

Europako Batasunaren laguntzarekin, sari honek ondorengo babesleak izan ditu: Espainiako Ingurugiro Ministeritza, ADIF (Trenen Azpiegituren Administrazioa), REFER (Portugalgo Tren Sare Nazionala), Ferrovie dello Stato (Italia).

Sari honen irabazlea zein izango zen erabakitzeko irailaren 24ean bilera bat egin zuten, eta ondorengo herrialdeetako 26 partaideren artean aukeratu behar izan zuten irabazlea: Espainia, Frantzia, Italia, Belgika, Britainia Handia, Irlanda, Austria eta Txekiar Errepublikak.

### Plazaola Partzuergoa

Konsortzioa erakunde publiko eta elkarte pribatuez osatua dago. Gaur egun, 6 erakunde publiko osatua dago (Leitza, Areso, Basaburu, Basaburu, Larraun, Le-

kunberri eta Iza-Gulinako udal-txeak). Hauek guztiak 8.000 biztanle ordezkatzen dituzte, eta 130 enpresarik gora biltzen ditu.

1994ean sortu zenez geroztik ondorengo kudeaketak bultzatu dituzte: bidexken berreskuratzea, Larraun erreka iturburu, Albasuko behatokia, Beteluko ferreteria, Orgiko hariztia, Mendukiloko kobazuloak, Plazaola Kantina, Basaburuako haritzak eta Iturras-karri proiektua.

### Plazaola Natur Bidea

Gaur egun 40 kilometro inguru egin daitezke Mugiro (Nafarroa) eta Andoain (Gipuzkoa) artean. 2000. urtean Mugiro-Lekunberri-Uitzi arteko 7 kilometroak estreinatuta zituzten. 2001. urtean bigarren fasearen berriztapena egin zuten, Uitziko tuneletik hasi eta Gipuzkoako mugara dauden 12 kilometroak.

Honetaz gain, 15 tunel berreskuratu dituzte, eta hauetatik lauretan argia jarri dute. Gaur egun Plazaola Partzuergoak Iruñea aldera doan ibilbidea berreskuratzeko lanetan dihardu, Mugiro-Irurtzun eta Irurtzun-Iruñea artean.

## Laburrak

### Patziku Perurenaren liburuaren aurkezpena

**LEITZA** » Bihar Patziku Perurenak bere azkeneko liburuaren aurkezpena eginen du: *Dakiguna ikasten*. Aurkezpena Leitzako liburategian eginen dute, 18:30ean, eta Donostian aurkeztu zuenetik lehenengo aurkezpena izanen da. Alberdania argitaletxeak argitaratutako liburu hau saiakera liburu da, eta bertan Patziku Perurenak azkeneko 8 urteetan idatzitako artikulua bildu ditu.

### Torreako afarirako txartelak salgai


**LEITZA** » Larunbatean talo eta gaztain jatea eginen dute Torreatabernan, 21:30ean. Txartela erosteko epea azaroaren 16an amaitzen da, ostiralean, eta Torrean bertan dituzte salgai. Menua hau izanen da: salda, taloak (txistorra, gazta, hirugiharra eta bokolatearekin), gaztain erreka ardo eta sagardoz bustiak. Kafea eta kopa ere emanen dituzte, dena 16 euroengatik.

### Etxebizitzaren inguruko mahai-ingurua, ostiralean

**LEITZA** » Ostiralean Aurrera Kiroel Elkarteak *Leitzan bizi nahi dot* izenarekin mahai-ingurua eginen dute. Bertan etxebizitzaren inguruko hainbat punturaz hitzatu dituzte, babes ofizialeko etxeak, lur zoruen legea, alokairuak... Hizlariak Elkartearen taldekoak izanen dira eta Leitza Iñez taldeak antolatu du.

### 7 txapelketetan parte hartu dute Aurrerako pilotariak

**PILOTA** » Aurrera Pilota Eskolako pilotariak txapelketa asko jokatu zituzten asteburuan. Nafar Jokoa izenekoetan 10 norgehiagoka jokatu zituzten, larunbatean, eta gehienak Leitzako Amazabalen izan arren, Irurtzun, Lizarran, Iruñean eta Zubirin ere aritu ziren. 10etatik 6 partida irabazi zituzten. Lizarrako Txapelketan igandean jokatu zituzten 4 partidetatik 2 irabazi zituzten, eta Guillermo Mazo Txapelketan 2tatik bakarra. Burlatoko eta Elgetakoetan Aurrerako mutilek ez zuten zortetik izan. Anartz Olanok Errioxako Txapelketa irabazi zuen Medel pilotariarekin batera, eta alebertain pilotari onenaren saria jaso zuen.



**Higiezin Agentzia**

Pablo Gorosabel 40  
1. solairua • 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel./faxa: 943 65 55 87  
Sakelakoa: 669 269 994

<p><b>Tolosa:</b> Erremeritari kalean, 62 m2tako planta duen etxebizitza, 3 logela, garajea aukeran.</p> <p><b>Tolosa:</b> Berritutako etxebizitza, 2 logela, 50 m2, 50m2-ko garajea.</p> <p><b>Tolosa:</b> Berazubi, berritutako etxebizitza, kanpoaldera, bista ederrak.</p> <p><b>Tolosa:</b> Aldaba auzoa, 3 pisutako adosatua, lursailarekin, 297.000 euro.</p>	<p><b>Tolosa:</b> Erremeritari kalea, hirugarren solairua, 3 logela, berritua.</p> <p><b>Tolosa:</b> Nafarroa Etorbidea, bigarren solairuan etxebizitza, 90 m2 erabilgarriak.</p> <p><b>Tolosa:</b> Ugarran goena, baserria, konpontzeko, 240 m2-ko planta.</p> <p><b>Tolosa:</b> Larramendi, etxebizitza laugarren solairuan, igogailua, egoera ezin hobean, trasteleku eta garajea aukeran.</p>	<p><b>Tolosalde:</b> baserria, 10.000 m2-ko lursailarekin, konpontzeko.</p> <p><b>Tolosa:</b> Belate, garaje itxiak salgai, 25 m2.</p> <p><b>Albiztur:</b> konpondutako baserria, 13.000 m2-ko lursailarekin.</p> <p><b>Alto:</b> 75 m2-ko planta duen bi pisutako borda, 10.000 m2-ko lursaila.</p> <p><b>Alegia:</b> eraiki berriak, 13 etxebizitza, 2 eta 3 logeletakoak, trastelekuarekin, 174.000 euro.</p>
--	---	--

rotatik gora. Anoeta: etxebizitza harrizko etxetzarrean, konpontzeko, 90 m2.

**Alto:** etxea, konpontzeko, 3 etxebizitza egiteko lizentziarekin, 10.000 m2-ko lursaila.

**Irua:** etxebizitza, atikoa, 3 logela, kanpo aldera, oso eguzkitsua, 237.500 euro.

**Ibarra:** etxebizitza, 2 logelekin, konponduta, 258.435 euro, saltzeko presha du.



13°  
7°

GOIZA EGUZKIA  
ARRATS. EGUZKIA  
BEROENA 11°  
HOTZENA 2°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaldia:** 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkartek Amurriora artea antolatuta du hilaren 17rako, larunbatarekin, Gasteiz eta Zumaia ere bisitatuko dutelari. Izen-ematea, elkartean bertan 26 eurotan. (28 euro ez bazkideek).
- **Tolosa.** Igandean Ferialekuan egingo den XXI. Babarrun Lehiaketa Gastronomikoaren ondorengo bazkarrako txartelak salgai daude 20 eurotan Gure Kaiola elkartean, egunero 19:30etik 21:00etara edo egun berean ferialekuan 10:00etatik aurrera (Erreserbak: 607 672709 telefono zenbakian) Antolaitzailea: Gure Kaiola elkartea.
- **Tolosa.** Mendia eta natura gaia duen argazki lehiaketa antolatuta du Oargi mendi elkartek. Argazkiak Karlis argazki dendan entregatu behar dira. Bihar da horretarako azken eguna. Sari ederrak izango dira.
- **Zizurkil.** Teodoro Hernandoren seigarren Ipui Lehiaketa antolatuta du Zizurkilgo Udalak Aiztondo bailarako. Adin guztietako herritarrentzat da. Azaroaren 30a da lanak entregatzeko epea, udaletxeetan.

### Hitzaldiak

- **Baliarrain.** Bihar liburutegian, 19:30ean, *Finantzak eta zu. Kutxak zure zalantzak argituko ditu.* Diruaz, aurrikuspen planez, aseguruaz eta kontuan hartu beharreko kontuez galde daiteke.

### Erakusketak

- **Alegia.** Eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketak ikusgai egingo da Kultur Etxean, egun guztian zehar.

### Zinema

- **Tolosa.** Bihar, Luchino Visconti zuzendari ospetsuaren *Muerte en Venecia* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, Zine-forumak antolatuta. 1971ko Canneseko Zinemaldian sari berezia lortu zuen.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.
- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

Idoia Bengoetxea tolosarrak Urruzuno Literatura Lehiaketa irabazi ondoren, Italian zehar egin du bidaia; «poz handia eman zidan saria irabazi nuela jakin nuenean», dio gazteak

# Literaturarekin bidaiari

JOXEMI SAIZAR

**H**ogei gazte autobus batean. Literatura dute elkar-gume. Italiaren iparraldean ezagutzen: Torino, Tirol, Dolomita, Venezia, Milan, Bolonia, Padova, Bolzano... Urruzunoliteratura lehiaketako irabazleak dira. Giovanni Giacomuzzirekin solasean, Cesare Pavese eta Natalia Ginzburg ibiltzen ziren parkeak ezagutu, Dario Fogatik galdetu, Dolomiten egunkaria bisitatu... eta gondolan ibili, Europako unibertsitate zaharrena ikusi, pizza eta pasta jan, barre eta dantza... Tartean, tolosar bat, Idoia Bengoetxea.

### Sariarekin «gustura»

«Inoiz ez nuen horrelako saririk lortu eta poz handia eman zidan jakin nuenean. Gainera nire urtebetetze egunean jakin nuen. Opari ederra! Gustura ibili naiz Italian zehar,» dio gazte tolosarrak. Las-korain ikastolan Batxilergoa amaitu ondoren, Bilbon ari da ikus-entzunezkoak ikasten. Betidanik izan da irakurtzalea, euskaraz eta gaztelaz, era guztietako nobelak "jaten" ditu. Eta paperaren aurrean idazten hasteko alferragoa izan arren, oraingo honetan etekin ona ateratu dio esfortzuari.

## A Agurrak



### Zorixonak!

#### Ana Torquemada Aristi

(Tolosa). Gaur 3 urte. Zorixonak eta muxuak familiaren partetik.

**agurrak** urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



Zeker-eskuin, Idoia Bengoetxea Venezian, gondola batean eta Urruzuno literatura lehiaketako ikasle irabazleak. HITZA

hitza ren eskutik

PIRRITX eta PORROT

PANPINAK

eta DVDa etxeko txikiek  
jolasteko



"Mari Motots"  
ikuskitzaren DVDA

18€



Pirritx eta Porrotx  
(motxila opari)

40€



Pirritx  
(poltza opari)

20€



Porrotx  
(poltza opari)

20€

Egin eskaria amaitu baino lehen  
902-82 02 01

hitza info